



EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA 2015-2016 IKASTURTEA

Oltza Zendeako Udalak euskara ikastaroak, barnetegiak eta ikastaro trinkoak egiten dituzten ikasleei diru-laguntzak emango dizkie, deialdi honetan agertzen den baldintza pleguaren arabera.

OINARRIAK:

1.-Eskatzaileak:

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Oltza Zendeako Udalean erroldaturik daudenek, gutxienez sei hilabeteko antzinasunarekin eta udalerrian bizi direlarik.

2.- Eskatzeko era eta epeak:

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek honako dokumentazioa aurkeztu behar dute:

- Eskabidea behar bezala beteta.
- Matrikularen ordainagiria.
- Klaseetara asistentzia-ziurtagiria.
- Langabeziaren laguntzarik jasotzen ez duela frogatzen duen agiria edo zenbatekoa adierazten duen zinpeko aitortpena.

Eskabideak aurkezteko epea **2016ko irailaren 30eko 14:00etan** bukatuko da.

Diru-laguntzak **2015-2016 ikasturtearekin** batera emango dira (irailetik irailera).

Aurkeztutako eskabideak deialdi honetan ezartzen diren baldintzak edo agiriak beteko ez balitu, eskatzaileari, gehienez ere, hamar eguneko epe luzaezinean horiek aurkezteko eskatuko zaio eta jakinaraziko zaio, hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, aldez aurretik eginiko ebazpena bidez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikuluan adierazten duen bezala.

3.- Diru-laguntzak ematea:

Udal Euskara Zerbitzuko Teknikariak kasu bakoitzeko balorazio txostena egingo du, eman behar den diru-laguntzaren portzentajea arrazoitu eta horren zenbatekoa zehaztuko du.

4.- Diru-laguntzak emateko irizpideak eta zenbatekoaren erabakia:

Kontuan hartuko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- Ikastaroaren interesgarritasuna.
- Eskatzailearen egoera sozioekonomikoaren balorazioa.

Diru-laguntza hauek Udalak antolatzen dituen ikastaroetara joatea ezinezkoa duten ikasleei edo Udalak antolatzen ez dituen ikastaroetara joaten direnei emango zaizkie soilik.

5.- Diru-laguntzen justifikazioa:

Diru-laguntza eskatzen dutenek **2016ko irailaren 30eko 14:00ak baino lehen** Udalak emandako laguntza frogatzen duten agiriak aurkeztu behar dituzte, klaseetara asistentzia frogatzen duen ziurtagiriarekin batera.

Onartuko diren ordainagiri bakarrak matrikula eta kurtsoaren kuotei dagozkienak izango dira. Garraioa, materiala etab. ez dira kontuan hartuko.

Dirulaguntzen zenbatekoa honako bi portzentaje hauen artean ibiliko da:

- Langabetuentzat: kostearen %50a gehienez.
- Lanean ari direnentzat: kostearen %33,3a gehienez.

6.- Kontrola:

Oltza Zendeako Udalak informazio osagarria eskatzeko eta diruz laguntzen dituen ekitaldiak ikuskatzeko eskubidea dauka.

Aipatutako arauak ez betetzeak emandako diru-laguntza kendu, emandako dirua itzuli eta hurrengo deialdietan dirua eskatzeko eskubidea galtzea ekarriko du.